



2015KO UZTAILEKO EFEMERIDEAK

(Ordu guztiak denbora uninertsalean eman dira. udako ordutegian, gehitu 2 ordu ofiziala kalkulatzeko)

BEHATZEKO PROPOSAMENAK

- Begi hutsez:

Hilaren 4an, 14:00an, Delta Cephei izarraren distira maximoa; magnitudea 3,5etik 4,4ra aldatzen zaio 5,366 egunean behin. Hilaren 9an, 15ean, 20an, 26an eta 31an izango dira beste maximoak. Hilabete erdirarte, eguzkia ezkutatzera, Jupiter ikusi ahal izango da Artizarretik gertu. Argitasuna dela eta, prismatikoekin errezago ikusiko dira.

-Teleskopioarekin:

Saturnoren eraztunak oso ongi ikusten jarraituko dira.

ILARGIA UZTAILAN

02 2:20an, Ilbetea.

05 18:54an, Perigeotik pasatuko da Ilargiaren eta Lurraren arteko distantziarik txikiena 367.093 km (aurreko apogeoan baino 37.039 gutxiago).

08 00:07an, Goranzko nodotik pasatuko da.

08 20:25an, Ilbehera.

12 00:27an, Konjuntzio geozentrikoan Tauroko Pleyadeekin, 8,3^o-ra.

12 18:04an, Konjuntzio geozentrikoan Tauroko Aldebaran izarrarekin, 0,9^o-ra.

16 01:25an, Ilberria.

18 14:51an, Konjuntzio geozentrikoan Jupiterrekin, 4^o-ra.

19 00:49an, Konjuntzio geozentrikoan Artizarrekin, 0,4^o-ra.

19 18:04an, Konjuntzio geozentrikoan Leoko Regulo izarrarekin, 3^o-ra.

21 11:05an, Apogotik pasatuko da, Ilargiaren eta Lurraren arteko distantziarik handiena 404.844 km (aurreko perigeoan baino 37.751 gehiago).

21 19:30an, Goranzko nodotik pasatuko da.

23 14:12an, Konjuntzio geozentrikoan Virgoko Spica izarrarekin, 3,9^o-ra.

24 04:05an, Ilgora.

26 08:19an, Konjuntzio geozentrikoan Saturnorekin, 2,2^o-ra.

27 gutxieneko librazioa longitudean ($l = -6,6^\circ$). Krisien itxasoak ikus daitezke ekialdeko linbo ondoan.

27 04:21an, Konjuntzio geozentrikoan Eskorpioko Antares izarrarekin, 9,3^o-ra.

29 gutxieneko librazioa latitudean ($b = -6,6^\circ$)

31 10:44an, ilbetea. Hilabete honetako bigarren ilbetea, Egun honetan, eguzkia ekialdetik ateratzen den bitartean, ilargia mendebalde horizontearen gainean aurkituko dugu oraindik. Eta eguzkia mendebaldetik sartzerakoan, ilargia ekialdeko horizontearen gainean egongo da jada.

PLANETAK UZTAILEAN (LURRAREN ORBITA-ABIADURA: 107.280 km/h)

Merkurio (Hilaren 8an aurretik bakarrik ikusgai, gauaren amaieran) orbita-abiadura 172.440 Km/h

Goi konjuntzioan hilaren 23an. Eguzkia baino ordubete lehenago aterako da ekialde ipar-ekialdeko horizontetik. Itxuraz eguzkira gerturatzen doan heinean, magnitudeak gorantz joko du. Igoera zuzena 5h eta 9h bitarte, deklinazioa 21^o, 23^o eta 18^o tartean. Hilabetea Tauron hasiko du, beranduago Geminisera pasa eta Kantzerren bukatzeko. Magnitudea oso azkar igoko zaio 0,2tik -1,4ra.

Artizarra (Arratsalde amaieran ikusi ahalko dugu hilaren 25 arte) orbita-abiadura 126.000 Km/h

Hilaren 1ean, eguzkia sartu eta bi ordu eta hamar minutu beranduago ezkutatu da, eta orduerdi baino gutxiago 31ean, ikusteak galeratzen duena. Behe konjuntzioan hilaren 15an. Igoera zuzena 09h eta 10h bitarte, deklinazioa 14^o eta 7^o tartean. Hilabete guztia Leon emango du.

Magnitude handiena, -4,5koa, hilaren 12an izango du, gero beherantz joango da hilabetea -4,3an bukatzeko. Hilaren 1ean Jupiterren ondoan ikus daiteke.

Marte (ezin da ikusi hilabete honetan) orbita-abiadura 86.760Km/h

Eguzkiarekin konjuntzioan izan zen joan den hilaren 14an. Igoera zuzena 06h eta 08h bitarte, deklinazioa 24° eta 22° tartean. Hilabete guztia Geminisen emango du. Magnitudea 1,7tik 1,9ra murriztuko du.

Jupiter (Gauaren hasieran ikusgai hilaren 25 arte) orbita-abiadura 47.160 Km/h

Hilaren 1ean, eguzkia sartu eta bi ordu beranduago ezkutatu da, eta ordubete baino lehenago 31an. ikuskatzeko geroz eta egoera okerragoan aurkitzen da, baina Artizarrera gerturatzeko aukera izango dugu. Igoera zuzena 10h, deklinazioa 15° eta 13° tartean. Hilabete guztia Leon. Magnitudea zertxobait jetsiko zaio -1,8tik 1,7ra.

Saturno (gauaren lehen erdian ikusgai) orbita-abiadura 34.560 Km/h

Hilaren 1ean, eguzkia sartu eta ordubete beranduago ikus daiteke hegoaldeko horizontean, eta hegoalde hego-ekialdeko horizontean 31an. Igoera zuzena 16h, deklinazioa -18°. Hilabete guztia libran. Magnitudea 0,3tik 0,4ra pasako da.

Hilaren 2an 13:59an, Titan elongaziorik handienez planetatik mendebaldera

Hilaren 10an 14:00an, Titan elongaziorik handienez planetatik ekialdera

Hilaren 18an 11:59an, Titan elongaziorik handienez planetatik mendebaldera

Hilaren 26n 12:16an, Titan elongaziorik handienez planetatik ekialdera

Urano (Egunsentia baino lehentxoago ikus daiteke) orbita-abiadura 24.480 Km/h

Igoera zuzena 1h, deklinazioa 7°. Hilabete guztia Piscisen. Magnitudea 5,8an mantenduko da.

Neptuno (Gau amaieran ikusi ahal izango da) orbita-abiadura 19.440 Km/h

Bere erretrogradazio mugimendu mantsoan darrai, Igoera zuzena 23h, deklinazioa -9°. Hilabete guztia Acuarion emango du. Magnitudea apur bat haundituko du, 7,9tik 7,8ra.

UZTAILEKO BESTE EFEMERIDE BATZUK

01 Astelehena. Eguerdian, 2.457.205. egun juliotarra hasiko da.

Egunak 15 ordu eta 21 minutuko iraupena du hilaren 1ean, eta 14 ordu eta 36 minutukoa hilaren 31n.

02 Eguerdian, urtearen erdian aurkituko gara.

06 19:40an, lurra bere afelioan aurkituko da, aurtengo distantziarik handienez eguzkiarekiko.

Momento hau hileko 2tik 20:00an eta hileko 6ra 23:00an bitarte izan daiteke. Aurtengo Urtarrilaren 4ean baino 5 milloi kilometro urrutiago aurkituko da lurra.

17 Teorikoki, Hegiraren 1436. Urteko Ramadan hilabetearen azkeneko eguna.

21 06:24an, Eguzkia itxuraz Kantzerren sartuko da (118,21°)

23 Astrologiaren arabera eguzkia Leon sartuko da (120°). Zodiakoaren zeinuen mugak longitudean, eta izen bera eramaten dute zodiakoaren konstelazioen mugen artean alde ederra dago.

26 Denboraren ekuazioak bere urteko bigarren maximoa izango du: +6m 32s.